

Mendiak eta Ramalako setioa hizpide

‘Bidaide, Euskal Herria bizkarrean’ eta ‘Paul Nicholson. Hiru aste Ramalako setioan’ liburuak argitaratu ditu EGUNKARIAK

Bi izan dira bukatu berri den urtean EUSKALDUNON EGUNKARIAK kalera-tu dituen liburuak. Liburu batek Euskal Herriko mendiak ditu ardatz; besteak, aldiz, puri-purian dagoen Ekialde Hurbileko gaztazka.

Mendira joatea gustuko dutenek etxean izan behar duten liburu horietako bat da *Bidaide, Euskal Herria bizkarrean*. Euskal Herri osoko mendi ibilbideak aurkituko ditu irakurleak, guztiak EUSKALDUNON EGUNKARIAKO *Mundumira* gehigarrian azal dutakoak, baina liburuak egoituak eta osatuak. Ramon Olasagasti gehigarriaren arduraduna, Joxean Gil-Garcia, Alberto Errazti, Xabier Aranguren eta Allande Sokarros izan dira ibilbideen egileak.

Gidaliburua

Lau irizpide nagusi aintzat hartuz osatu da bilduma: liburuak euskaraz izatea, praktikotasuna, lurraldetasuna eta gidalibu-

‘BIDAIDE’

Euskal Herri osoko mendi ibilbideak aurkituko ditu irakurleak, telefono, helbide eta datu ugariz ondo hornituak

‘HIRU ASTE RAMALAN’

Israeldarrek Jasser Arafat Mukatan setiatua izan zuteneko lekukotza kontatzen du EHNEko Paul Nicholsonek

rua izatea. Gidaliburua denez, Euskal Herriko aterpe, landa etxe eta kanpin guztien zerrenda jasotzen da, baita eguraldiaren berri jasotzeko telefono zenbakien, mendi elkarten zerrenden edo mendiarekin zerikusia duten webgune interesgarrien helbideak ere.



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Paul Nicholson. Hiru aste Ramalako setioan liburuaren aurkezpena, Martin Ugalde Kultur Parkean. Argazkian: Paul Nicholson, Jose Mari Pastor egilea, Nahla Chahal (Frantziako Palestinarekiko Elkartasun Mugimenduetako ordezkaria) eta Martxelo Otamendi, EGUNKARIAKO zuzendaria.

10. ibilbidea

Soila eta Muela

Araba

Zailtasuna	●●●○○
Luzera	18 km
Iraupena	5:30 ordu
Desnibela	409 m.

Izkiko bi handiak

EGUNKARIA

Izkiko parke naturala azaratuaztearen hasierara, itzuli erakargarri bat erakutsi du.

Bidaide, Euskal Herria bizkarrean liburuak irudi bat.

Maixa Olano arduratu da diseinuaz, Alberto Peñalba argazkiak egokitzeaz eta Joxean Apeztegia infografiaz. Oso diseinu erakargarriko liburu da, mendira eramateko modukoa. Izan ere, plastifikatua da, orriak ez bustitzeko. Gainera, 15 x 21 zentimetroko neurria du, motxilan behar bezala sartzeko.

Bestalde, gaur puri-purian dagoen Ekialde Hurbileko gaztazka hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen du *Paul Nicholson*.

Hiru aste Ramalako setioan liburuak. EGUNKARIAKO Nazioarteko saileko arduradun Jose Mari Pastor izan da liburuaren egilea, eta bertan EHNEko sindikatuko eta Nekazarien Bidea erakundeko buru Paul Nicholsonek israeldarrek Palestinako presidente Jasser Arafat Mukatan setiatua izan zuteneko lekukotza kontatzen du.

Izan ere, bertan izan zen. «Arin, baina arinkeria erori gabe kontatzen saiatu naiz be-

rak kontatutakoa», azpimarratu du Pastorrek. Emandako materialean oinarrituta, balio politikoaren nolabaiteko bertsio nobelatua egin du Jose Mari Pastor egileak. Gertaerak, 90 orritan banatutako 27 ataletan jasotzen dira.

Garrantzia handia izan du liburuan Christophe Delmer suitzarrak ere, hark argazkiak utzi baitizkie, eta horien bidez ere lekukotza garrantzitsua jasotzen da.

Córdoba Berria

Bidean topatzerakoan, sentituko duzu. Bere linea erakargarriak eta zoragarriak liluratu egingo zaituzte. Barneko konfortak eta teknologia. 130 ZP dituen TDI bezalako motoreek. Bere kiroltasunak. Eta segurtasunari dagokionez, Córdoba berria eduki horniturik dator: ABS, MSR, eta aire-zaku bikoitza. Zure kontzesionariora huraxe ikustera etortzerakoan, utzi zure gogoia haren esku. Nolanahi ere, liluratu egingo zaitu.



Liluratzeko
ahalmena



DONOSTIAKO SEAT KONTZESIONARIO EKLSUBOIA

KEP-AUTO

Tolosako hiribidea, 184 • Tel. 943 31 67 33 • DONOSTIA

Córdoba TDI 130 ZP. Kontsumoa: hiri kanpoko/hiri barneko/ponderatua: 4,3/6,8/5,2 l/100 km. CO2 isurpena: 140 g/km.